



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.


Eta arreta berezi bat jarriz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA



Josi Jimenez:
Desioaren doinu
dotorea.

1998ko maiatzaren 26a. 4. zenbakia. Lege gordailua: BI-85-98. 125 pezeta.

Zurbaranbarriko jaiak ⇨ Gazteak eta lana ⇨ Athletic-en peñak ⇨ eta askoz gehiago...

berton MAHATSERRIKO
ALDIZKARIA



Berton zeure aldizkaria ere bada.

berton Begoña, Bolueta, Santutxu, Otxarkoaga, Txurdinaga, Zurbaran eta inguruko berri, hausnarketa, eztabaida, mezu eta kolorez hornitu gura dugu.

Herri aldizkaria gara, horrek esan gura du ateak zabal-zabalik dituzula. Ez izan beldur, ez lotsa, eta zeuk ere zeure aletxo botata proiektu honetan, zeure informazioa bidalduz, zeure iritzia emanez, zeure kritikak eginez (entzuteko deseatzin gaude), eta proiektua gustuko baduzu, ez konformatu esatearekin eta zeurea ere egin.

Bestalde, HARPIDEDUNA BAZARA eta arazoren bat izan baduzu aldizkaria etxean hartzeko edo ez bazaizu behar den eran ailegatu, dei egiguzu.

HEMEN GAITUZU:

ESTEBAN PERNET, 9. 48004 BILBO

TELEFONOA: 4735448

E-POSTA: berton@mail.com

Santuskaratu 98

Santutxuko euskal berririk ospakizuna



Ekainaren 4an,

Begoñako ubalteen arratsalpeko 8etan:

MAHAI INSURUA

"Santutxu eta euskalgintza"

Partaideak: Patxi Uribarren, Joseba Arrieta, Martin Basterra

Ekainaren 12an: Markoartu Txokoan

gaveko 10etan

BERTSO AFARIA

Sebastian Lizaso eta Igor Elortza

Ekainaren 19an:

EUSKAL JAIA

Arratsalpeko 8etatik hasita, Poteo kalejira mozoraturik
Ondoren herri-afaria.



**OTXARKOAGAKO
EUSKAL TXOKOA**

Gure auzoan ekinean

*Ikastaroak, irteerak,
kultur ekitaldiak... eta
beste hainbat gauza
antolatzen ditugu*

Euskaraz bizi!

Telefona: 4121877

berton

AURKIBIDEA

4 ⇨ **BUZOIA**
IDATZI DIGUTENA

5 ⇨ **BERTORATUAK**
"MAHATSONDOKO ONGARRIA"
"IGANDE GOIZEKO PARANOIAK"

6 ⇨ **Beitu!**
GAZI-GOZOAK

7 ⇨ **Begia**

8 ⇨ **MAHATSORRIA**
BEGOÑA ETA EUSKAREA
1924ko SAN ISIDRO
JOSU AGIRRE

10 ⇨ **BIBA ALEGRANTZIE!**
ZZURBARANBARRIKO JAIK 98

14 ⇨ **BATU GURERA!**
GABRIEL ARESTI ANTZERKI TALDEA!

15 ⇨ **BERBETAN**
UDABERRIAN ZER? GEHIAGO.

16 ⇨ **BAKARKA**
JOXI JIMENEZ

19 ⇨ **MAHATSBERRIAK**

22 ⇨ **BERTON DUGU!**
ETA GAZTEOK LANEAN ZER?

24 ⇨ **BOTA BA!**
ATHLETIC-EKO JARRAITZAILEEN
BATZAR NAGUSIA

26 ⇨ **BIDEAK**
KULTURBERRIAK

28 ⇨ **BEJONDEIZULA**
Lehiaketa mundiala!

29 ⇨ **BADATOS**
AGENDA

30 ⇨ **BURUHAUSTEAK**
DENBORAPASAK

31 ⇨ **BERTSOTAN**

berton

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur Elkarte

ERREDAKZIOA:

Aita Pernet 9
48004 Bilbo
Telefona: (94)4735448
E-posta: berton@mail.com

ZUZENDARIA:

Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:

Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte, Jaione Letamendia, Itxaso Perez.

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Joseba Barrenetxea, Benito Fiz

KOLABORATZAILEAK:

Joseba Zelaia, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Edurne Basozabal, Idoia Irastorza, Igor Martin de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola.

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA :

Koldo Urrutikoetxea, Unai Cuevas

LEGE GORDAILUA:

BI-85-98

ALE KOPURUA:

1000

FOTOMEKANIKA:

Argia S.L.

Inprenta:

Antza inprimategia.

Aupa Mahatsorriok!

Berton esan didate dela oso zaila ulertzeko, jo! Eske euskera horrekin... nik paso! Ze... hemen denak egiten dugu beste modu batera, eta guk egiten dugu euskera ere. Beraz, laugarren *Berton*-en zer dagoen nik kontatzen dizuet, hemen gehienek egiten dugun bezala.

Ba, hasteko kontatzen dizuegu Zurbaranbarriko jaietan zer gertatu den, ze jaiak hasten dira eta hemendik dauden lehenak dira, eta gainera, oso ondo pasatu dugu aurreko urteetan eta aurten ere bai, ziur! Eta gero datoz Santutxukoak.... ze Otxarkoagan aurten ez dago jairik. Ze pena!

Eta gero, Abuztuan, zoro batzuk egiten dute jai bat Artxandan, San Justo edo Justugune edo holako zoezer, baina ez dago kontzerturik, eta bakarrik dago txosna bat (esan didate txosna s-z idazten dela). Baina oso pozik etortzen dira handik urtero. Ez dakit zer egiten duten han.

Eta gero, erreportaia bat dago gazteak eta lanari buruz, ze, gazteak oso txarto gaude lana aurkitzeko eta beti egiten ditugu lan batzuk inork nahi ez dituenak, eta gainera txarto ordaintzen digute, eta oso puteatuta eta izorrotuta egoten gara. Da putada bat, benetan! Begira, adibidez, niri hau idazteko ez didate ezer ordaindu *Berton*-ekoak. Eta gainera pozik nago, ze kontatu ahal dut nahi dudana eta gainera hobeto ulertzen zait nire aurretik idatzi duten matsorrianoei baino. Eta gainera nik kontatuko ditut gauza batzuk gazteei gertatzen zaizkigunak eta ez aldean gauzak.

Eta nik esan diet egiteko elkarrizketa Joxiri, ze gazteei musika gustatzen zaigu eta gainera, institutoan egon nintzenean Joxik beti aprobaten zidan. Eske da supermajoa eta enroilatzen da superondo!

Beno, gauza gehiago kontatu behar nituen, baina lekua bukatzen zait eta esan didate bukatzeko, asike bukatzen dut.



SANTUTXURAKO BIDEAN.

Santutxu Bilbo leku bitxia da. Hiri latz honetako auzorik jendetsuena omen da. Eta hortaz berehala konturatzen zara; Hemen jende guztiak daki nora doan, pausu arinean eta tinko berean. egunero, ehundaka eta ehundaka dira gure begien aurretik pasatzen direnak, gelditu gabe. gelditu? zertarako? Ez da harriztekoa bihar beste hainbeste ikusiko baititu.

Zenbat izango ote dira berak orain arte ikusitakoak? gai izango ote da ikusi dituen arteko erdiaren erdiaren erdia sikieran ezagutzeko? Ezta nahi ere, horrenbeste aurpegi gogoratu nahi izan, orain berriz ahazteko ahaleginak egiten zabilzanean burutik nola kendu? Barruan gelditu ote dira?

Hau da niri telebistarekin gertatzen zaidana, zenbat izango dira irudiak aurrekoak bezala, nahi gabe barrenean gordetzen ditugunak, ibili eta ibili geureganatzen ditugunak?, eta jakina, gainetik kendu ezin ditugunak?

Hiri handia telebista erraldoi bat bezala amaigabeko mugimendua da, hiriaren errotua bezain azkarra eta aldakorra beti eta era berean monotono errepikakoi eta himnotikoa den abiadura horretan txoratzen zaituena. errepikapen hau egun gutxi batzuetan apurtzen da bakarrik. Egun horietako bat pasa den egunean izan zen, jende guztia kalean zebilen bere kolorea kale eta kantoietan zehar barreiatzen, normalean

ezezaguna edo ez-ohizkoa zaigun mugimendua. oihu bakar-raren atzetik aho batez erantzuten zena bera. Behin eta berriz esan eta esana errepikatu eta errepikatu. Hau ote da presioa arintzeko izaten diren ihesbide famatu horietako bat, ba hala bada ez zen hutsala preso zena. Solokoetxeko eskailerak jendez gainezka zeuden litroak edaten, kinito jokoan, bat-batean hasten da haien arteko bat oihuka _____! eta aho batez erantzuten dute besteak _____.

Bete hutsuneak.

Gorka Flores.

METADONA SOLOKOETXEN: EZ DIGUTE EZER OPARITZEN

Osakidetzatik publikoki zabaltzen ari diren «zifra» eta «gaizki-ultuen» kanpainaren ondorioz eta prentsa, irrati eta telebistan agertutako hainbat informazioak direla eta, Solokoetxeko Auzo Elkarteak zera adierazi nahi du: - Gure Zentroan tratatuko diren gaisoen kopurua gutxitzea, ez da kontsideratu behar Osakidetzak emandako opari gisa, baizik auzo honek Metadonaren zentralizazio Programaren aurka eta prozesu honi eman zaion sekretismo eta gardentasunaren aurka egindako presio responsablearen ondorio gisa.

- Maiatzaren 6an Zurimendi Jaunarekin izandako elkarrizketaren ondorioz, orainarteko egoera aldatuko dela eta hiritar guztiak Osakidetzak dituen asmoen berri izango dutela espero dugu. Gogoan izan, Zurimendi

Jauna gaur egun eta etorkizunerako garantizatu daitezkeen baldintzak idazki baten bidez gureganatzera konprometitu zela. Idazki hori izaten dugunean, auzokide eta komunikabideei emango diegu bere berri.

- Bestalde, argitu beharra dago Metadonaren Programa bi modulutan banatua dagoela: tratamendua bata (terapia eta jarraipena), eta metadona ematea, bestea. Osakidetzatik eman zaizkigun datuak, metadona ematen zaienena soilik izan dira, gaur egun oraindik, Auzo Elkarteak ez duelarik tratamendu moduluan daudenen daturik. Beraz, ez dakigu benetan zenbat gaiso dauden Solokoetxeko Zentruan.

- Badaude zenbait ikuspuntu pertsonal, Programaren kalitatea zalantzan jartzen dutenak. Gainera, kasu batzutan, Programan sartzeko zai daudenen zerrenda bat ere aipatu izan da. Zai dauden hauek eta jada Programa barruan daudenek ere, kalitatezko erantzun azkar eta efikaz bat behar dute, integrazio soziala bultzatuko duena eta ez dena konfliktoan sartuko bizi direneko ingurunearekin. Hori, deszentralizazioarekin soilik lortu daiteke. - Beraz, erantzun eta eskaini beharreko aukerak hauek izan behar dutela uste dugu:

1.- Programa, Osakidetzako sare guztira zabaltzea, gaisoari gertutasunagatik tokatzen zaion Anbulategi, Osasun Zentru edo antzekoen bidez ere integratuz. Kondizio berdinak izatea rezeta baten bila bere medikuarengana ((de cabecera))) joanez gero, edota bere espezialistarengana kontsulta pasatzera joan nahi izanez gero.

2.- Auzo zentral eta periferikoetan Osasun Mentalerako Zentruak edota Modulu Psikosozialak prestatzea. Azken hauek, Udaletxeen laguntza eta inplikazioarekin eginak izan beharko lukete.

Solokoetxeko Auzo Elkarteak.

Mahatsondoko ongarria

Alberto Ugarte

Orain 35 bat urte mahats-ondo berriak landatzen hasi ziren euskaltzale saiatu batzuk. Giro ez bazegoen ere, ekinaren ekinaz, oztopo guztiak gaindituz lur mamiñean lotzea lortu zuten. lehendabiziko mahasparren itzalean beste asko errotu ziren, baita errotu ere euskaltzale haien arteko ezberdintasunak eta, zoritxarrez, oker-ulertzeak eta ezinikusiak. Urteetan zehar bakoitzak bere aldetik lan egin du Karmelon, Kirikiñon, Begoñazpin, Txurdinagan, Seintxun, euskaltegiaren eta abarretan. Hostotza sarrien itzala eta mordo beteetako ale helduak haien arrakastaren seinale dira. Neu ere banaiz aie horietako bat.



1998ko ekain honetan atzera-aurrera begiratu eta garai hartatik hona nola aldatu den egoera! Onerako zein txarrerako, argi-ilunetan beti. Hala ere, ez duzue uste ordua dugula esperientziak trukatu, elkarlanean aritu eta bat eginik euskararen geroa behin betiko segurtatzeko? Batez ere mahats-zorri zantar horiek etengabe erasoka gure urtetako iana zapuztu nahian lurra nahasten eta elkortzen hasi direnean?

Egizu euskeraz, ongarri ezazu gure lurra BERTON hazitako eta ondutako mahats orri eta ale hauek sendo eta gorrinarik gabe hel dakizkigun. Geure esku, geure euskararen dago aldi urte oparoak izatea.

Igande goizeko paranoiak

Joseba Zelaia

Enbarkada polita zuzendariak prestatu didana. Santutxutik nenbilen larunbat gauean zurito batzuk hartzen, etorri zitzaizkidan eta hitz goxoz esan zidanean: -"Zurekin hitz egin behar dut". Hasieran pixkat emozionatu nintzen, baina berehala konturatu nintzen hitz goxo horien atzean tranpatxo bat zegoela. -"Kolaborazio barik gelditu gara eta idatziko duzu zerbait?". Nola esan ezetz, baina ze demontrez idatziko dut! -"Noizko?" Bururatu zitzaizkidan galdetzea. -

"Ba, hori da arazoa". Eta begirada xamurraz - "astelehenerako prest egon behar da". Ene, beraz igandea daukat zerbait idazteko, eta gainera Zurbaranbarriko jaiak. -"Tira, ongi da astelehenerako zerbait izango dut".

Eskerrak atzo "txintxo- xintxo" ibili nintzela, eta gaur burua despejatuta daukadala. Despejatuegia agian, ze hasi naiz buru barruan zerbait bilatzen eta ez dago gauza haundirik. Zer demontrez idatziko dut? Ez naiz orain Athleticez hitzegiten hasiko, gehiegi hitzegin baita azken egunotan irrati, telebista zein egunkarietan, astean 90 minutu, praka motzetan, lan egiten duten horietaz. Hasi naiz pentsatzen hauek, bai ederto ulertu dutela, astearen lan orduen murrizketaren mamia, ez dut honekin jarraituko, nire alde antifutboleroa agerian gera daiteke eta agian norbait haserratu zait. Porzieto, Inurak eta Juanito Dhaulagirira heldu dira. Zorionak! Hauek ez dira telebistan horrenbeste azalduko, eta ez zaie inongo udaletxeen harrerarik egingo eta ziur beraiek ere ez luketela horrelakorik nahi. Bitartean, bueltako bidaietan, hurrengo denboraldirako planak egiten ibiliko dira, eta uste dut ez direla planak egiten ari diren bakarrak. Uda



laster datorkigu, eta jende guztia ari da, zer egingo duen pentsatzen; dagoeneko mota guztietako jomugak entzun ditut San Ferminak, Breñaña, Madalenak, Grezia, Larrabetzuko Gazte eguna, Galiza, badira Himalayara doazenak ere; izan ere, nori ez diote bidaiatxo hauek ordaintzeko kamiseta polit bat eskaini! Orain arte entzun dudana gertatzen ari da, baina azkenean beti gertatzen da plan gehienak ez direla aurrera

ateratzen eta gehienok, udako festetan zehar bukatzen dugula bidaiatzen, eta egia esanda ez dago batere gaizki. Baina badago denen agendan planik gabeko astebete, inprobisazio eta zoramenari eskainitako astea; ez dago zertan esan behar abuztuaren azkeneko astea dela eta jende gehiena ez dela Arenaletik ateratzen. Badaude, Bertoneko harpideak diren txoritxo batzuk aurten ere bidaiatu barik geldituko direnak; ez ahaztu zaudeten tokietatik postaltxoak bidaltzen.

Tira, hamar puztarri niretzat, lortu dut kolaborazio bat idaztea, eta ez pentsa horren erreza denik igande honetan fundamentuzko zerbait idaztea, bestela gogora ezazue Zurbaranbarriko jaien ostean ze egoeratan zeundeten. Orain zailena falta da zuzendariaren oniritzia, oso zuzendari exigentea daukagu. Norbait azken lerro hauetaraino iritsi bada, badu merito handia eta Bertoneko irakurle militante sutsutzat jo dezake bere burua, animo Benitori ere bera baita nire akats guztiak zuzendu behar dituen eta agian irakurle militante bakarra... ala ez?

Muskerren haginkadea

Edurne Basozabal, Iñaki Gaminde, Igor Martin de Vidales, Idoia Irastorza.

Euskaldunek lotura handia edukitzen izan *deure*¹ naturagaz, horregaitik asko izaten *direz*² animaliei buruzko Euskal Herriko ahozko tradizioan ibiltzen direzan kondaira eta kontuak. Honetan kondairotan abereen ganerakoak ezeze osterantzeko piztiei lotuten jakiezan kontuak ere badagoz.

Piztien artean muskerak beteten dau ohorezko lekuetariko bat euskal ahozko tradizioan, euskal herrietan honen animalion ganerako kondairak ugari eta ezagunak direzelako. Baina ez egizue pentsadu muskerak euskal ahozko literaturan baino ez direzela agertuten, literatura idatzian ere goreneko lekua lortu deure Obabakoak liburuari esker. Hainbestetan saritutako Bernardo Atxagak eskribidu *zeuen*³ liburuan muskerra protagonistea bihurtu jakun eta.

Muskerra, beste narrazti denak legez, Europako mendebaldeko tradizio klasikoan ospe txarreko animalia izan bada bere, ez jaku beti holan agertuten ahozko euskal kondairatan. Arbolantxako Goiko-Etxe baserriko Karmelo Elorriagari entzun ahal izan *dotzun*⁴ legez behin baten musker batek arbol baten pean lotan egoan baserritar bati suge bat gerturatu jakon haginkadea emon gura eutsola. Orduan han egoan musker batek itxarrarazo ei *eutson*⁵ lotan egoan gizonari buztanagaz haren belarrian kolpeak emonez sugeak haginka egin ez egion. Antza, egun hartatik jatorko muskerrari pizti ona izatearen fama, gure baserritarrek kontaten izan deuren moduan.

Baina muskerren ganerako esaten direzan kontu guztiak ez direz ez, hain mesedegarriak muskerrentzako. Gure herrietatik ibiltzen den beste ipuin batek diñoen legez nor edo nori musker batek haginka egingo balekio ha pertsona zazpi herritako kanpaiak entzun artino ezin izango *litike*⁶ askatu.

Muskerrei buruzko bigarren ikuspegi honetan eleizaren eragina egon ei da. Eleizaren tradizioan muskerra sorginen eta deabruaren animalia izan da eta holantxerik, beste narrazti guztiak bezala, baztertuten izan deure.

Norberak gehien gustetan jakon ipuina hartu daijala eta muskerak gustatu zein gustatu ez entzun beitez bada Arbolantxa, Begoña, Bolueta, Otxarkoaga, Santutxu, Txurdinaga eta Bilbo osoko euskal kanpaiak erderaren haginkadetik euskera askatu daigun; edo euskerak loaldi honetatik urten daian muskerak itxarrarazo begio erdera pean lotan dagoan euskal-dunari.

1 Begoña aldeko aditz forma, Bizkaiera literarioko "dabe" eta batuaren "dute" formen parekoa.

2 Begoñako euskeran "dira".

3 Begoñako aldaera, Bizkaiera literarioan "eban".

4 Begoñako aldaera, bizkaiera literarioan "deutsogu" ibiltzen doguna; euskera batuan, berriz, "diogu".

5 zer-nori-nork sistemaren paradigma erabili dogu Begoñako euskaldunek holantxe ibiltzen dabelako.

6 Bizkaiera literarioan "leiteke".

1924ko San Isidro eguna

1924ko maiatzaren 15ean, San Isidro egunez, Sindikatutik Begoñako Eleizara egindako prozesinoaren urteera. Sasoiko baserritarrek eroaten euden santua. Argazkian agertuten dira, besteak beste: Elola txistulari ezaguna (ezkerrean), Zaretxe baserriko Ramon Zubieta (atearen eskoian, bandeagaz goren ikusten dana), Luis Gorostiaga (aurrekoarenetik eskoira bigarrena), Ramon Elorriaga honen ondoan, eskuak poltsikoan daukazala, Sindikatuen pentsuen biltegi behargina zan eta bere baserria Bertonen erredakzinoa dagoan Pernet kalean egoan (Bai, hemen sasoi baten baserria egon zan). Eskoitik hirugarren, danborjolearen ondoan, Hilario Etxebarria dago, San Roke baseleizako sakristau eta Manu Leginaren trikiti ezaguneko Guillermin panderujolearen aita. Banea eta eskopeteagaz dagozanak, sasoiko "guardajurauak" dira, baserriak eta soloak Bilbotik Lapurretan etorten ziranangandik jagoteko.



Eskerrik beroenak Anton Larrazabaleri argazkia eta informazioagatik.

Josu Agirre: "Betik erderara noa, kartel guztidxekek ganera batuaz dauz"

Josu Agirre Begoñako euskereari eusten deutson Arbolantxako baserritar gaztea da. 40. hamarkadan altxatako Etxe Pinto baserrian bizi da gaur egun bere familiagaz eta Otxarkoagako Ramon y Cajal eskolan atezain izateaz gain, baserriko beharrak ere beteten dauz. Beragaz egon gara berbetan.

Koldo Urrutikoetxea

Berton: Zuek Arbolantxa bertakoak zarie ezta?.

• *1 Bai, aittitte horko goiko Bengoetxe baserrikoa zan eta aitte Goikoetxekoa, entzute dekot 13 urteaz-edo etor zala hona biziten. Karmelok konteta dekost, nik hori dekotset entzute. Ni hemen jaio nintzen eta nire jaiokera izan zan itzela. Komadrona bat-edo etor zan eta eskillerak igotean jausi zen bueltaka, ama zagataka goixen nire miñekaz, eta bestiek danak atendiduten hori komadrona hori, yausi zan-ta. Arrebie barriz ospitalean jaio zen.*

Berton: Etxean euskeraz egin dozue beti?

• *Bai. Hemen etzien aittitte difuntue hil arte... joe, betik euskeraz derri-gorrez txo! egin behar zan, ostantzien...*

Berton: Begoña aldean, bertako aldizkaria atara dogu, Berton izenekoa, ezetuten dozu?

• *Jaionek esan eustan zeezer, etor zan egun baten eta eitteko hoge lerro-edo rebistarako baie nik ez dakit, gero... hori etorko dala baie enaz egon gehidxau.*

Berton: Eta auzoko euskeldunen artean zabalduke, zelan ikusten dozu?

• *Irakurri eta eskribidu hemen auzoan beti erderaz in du, ez? Hori hemetik beti iñ'a erderaz-eta...*

Berton: Tira ba zuek leidunt ez badozue be, beste batzuek jakin deien zuen barri eta Arbolantxako euskerea zelangoa dan. Bertako euskerea be landu gura dogu eta.

• *2 Bertakoa, Zamudio ingerukoa-edo ezta ixengo ba? Gauze*

batzuk igual kanbidxekek deurie, ezta, baie nik antzan topetan'ot berba einkeran eta holan... hemen zamudiotarrak asko! alboan egon zien eta yantzan eta... berba einkerane Zamudixokoagaz antzeko bat topetan dot gero! Ba, eztaiz zelan esan... kanbidxetan deure gauze batzuk, guk igitidxe esaten dune eurek zerrie ta holan... antzekoa ostantzien.

Nik-e hiru-lau hilebete inyot hori...alfabetatzen. Aiuntamentutik in dustie atateko perfile, bizkaitarrez. Ze beste batzuk batua-eta ataten deure baie gu zelan euskeldun zaharrak garen... eta ni'pe asko dekot holan irakurteko-eta, han orduen ibil nintzanean ba bueno, sikan-e... baie holan... bueno! zoratute b'ez! Nik ikusten dot kartel bat, betik erderazera noa, ze errezaun nitzako be! Ganera kartel guztidxekek batuaz dauz.

Berton: Zuk baserriko bizimodua darozu. Ordu asko sartuten dozuz baserriren?

• *Beste guztidxekek. Zazpi behi dekotez oiñ, eta hamabi eta hamalau be euki dotez.*

Pentsa kanpoan behar itten badozu ba bedarra ebaitteko bakarrik behar dozu ordu bete baino gehidxau. Soloan etzerako bakarrik oin, ama ibil zen plazan, pendejeruek-eta... ze aittitte difuntuek ezeben bihar ein kanpotik-eta, betik etzien, ordun bai,

akordeko zara zelango mallukidxekek eta zelango sailek. Gero, etor zien hortik Huelva edo Almeriatik, goxetikoak, eta ya, atomarporsako! Etzerako ba bai, piperrak be, ziento pare bat, da tomatie be, zatitxu bet, etzerako kuadrotxu bet deku da piti bet, justo justo etzien yaten dune.



Eutsok mutile!



1 Bai, aittita horko goiko Bengoetxe baserrikoa zen eta aita Goikoetxekoa, entzunda daukat 13 urteaz-edo etorri zela hona bizitzen. Karmelok kontatua dit, nik hori diot entzunda. Ni hemen jaio nintzen eta nire jaiokera itzela izan zen. Emagin bat etorri zen eta eskillerak igotzean bueltaka jausi zen, ama goian zarata nire minekin, eta beste guztiak emagin horreta arduratzen, jausi zen-eta. Arreba berriz ospitalean jaio zen.

2 Bertakoa Zamudio ingerukoa-edo ez da izango bada? Gauza batzuk agian aldatuko dira, baina nik antza topatzen diot berba egikeran eta holan... hemen zamudiotarrak asko (daude)! alboan egon ziren (herri biak) eta dantzan eta... berba egikeran Zamudixokoagaz antzekotasun bat topatzen dut gero! Ez dakit zelan esan, aldatzen dira gauza batzuk, guk igitaia esaten duguna eurek zerra eta holan, antzekoa osterantzean. Nik hiru lau hilebete egin dut alfabetatzen. Udaletik perfile aterazi didate, bizkaitarrez. Ze beste batzuek batua-eta ateratzen dute, baina gu zelan euskaldun zaharrak garen. Eta nik ere asko daukat (kostatzen zaiz) irakurtzeko-eta, han ibili nintzanean beno, behintzat... baina holan... bueno! zoratuta ere ez! Nik ikusten dut kartel bat eta beti erderara noa, ze nireztat ere errezaun! Gainera kartel guztiak batuaz daude.

Etxepinto baserria.

Zurbaranbarriko jaiak 98

...eta hirugarren urtez jarraian, Zurbaranbarrin jaiak ospatu dira (urte batzuetako geldiu-neko tartea izan ondoren). Aurreko urteetan lez egitarau aberasgarri bat aurkeztu zaigu, denok gozatzeko aukera izan dugula. Baina, izan behar den legez, urtetik urtera hobetu da. Hasteko, beste asteburu bat gehiago batean luzatu direlako. Beraz, zazpi egunetan ezezik hamarretan ere parranda egiteko aukera izan dugu.

Itxaso Perez

Aurreko eguna abiada handikoa izan zen. Txosnak eta eskenatokia montatzen hasi, banderinak ipini... eta ikusi ea autobusak ondo pasatzen ziren. Honekin zenbait apustu egin zen. «Bihar ezetz egon hirugarren farolatik aurrera...». Eta zoritxarrez asmatu ere bai...

Estreinaldiko eguna hilaren 16a izan da, larunbata. Goiz-goizetik txosna eta eskenatokiari azkenengo ukituak eginez, Bilboko Aste Nagusiko Txupinerak pregoia irakurri ondoren, arratsaldeko 5etan txupinazoarekin hasiera eman genien, gogoz eta alaitasunez kalejiran auzoko «kaleetan» zehar (berez eta izenez bakarra izan arren, Iturriondo plaza izan ezik). Zarata ateratzen nekatu ginenean, txosnetara abiatu eta ekitaldiei eman genien txanda, non haurrak nagusi izan ziren, euren trebetasunak malabaretan eta puxikekin erakutsiz.

Gutariko asko nekatu samar ibili arren dantzari ekin genion plazan berbenan Kresala taldearen eskutik. Giro onean, jendetsua egon zen, baina bigarren astebururako indar apur bat gorde nahian «goiz» oheratu ginen (txosnak zaintzen geratu zirenak izan ezik... gizajoak!).

Biharamunean plaieroak ipini, praka motzak eta kamiseta jantzi... eta aldapetan zehar arinetan aritu ginen, beno, hobe esanda, bakar batzuk aritu ziren - goizegi etxeratu zirenak, jakina -, eta kirola egiteko baina asko mugitu barik asmoa zutenak xakean aritu ziren. Kasparov

hauen ondoan larri ibiliko zen, ez pentsa! Hasiera batean Bilboko Udal Bandak jo behar bazuen ere, azkenean eta edonongo jaiak antolatzean gertatzen diren ezkoordinazioak direla eta, entzun barik geratu ginen. Hurrengo urtean agian... Dena dela, hor izan ziren inguruetako abesbatzak euren kantuekin goiza alaitzen, eta ez zuten hutsik egiten, ez.

Baina ohiturak galdu egin behar ez direnez, geure herri honetan garrantzitsua den bati jarraipena emateko gogoz aritu ginen, gogo handiz batzuk eta besteok: auzoan zehar turismoa eginez tabernaz taberna, aldapei beldurra kenduta eta bazkarirako sabela prestatzen. Arrastian haurrek eurentzako denbora izan zuten Ginkana zoragarri batekin, auzoa goitik behera ibiliz



bertin

eta euren trebetasuna aproba ezberdinetan erakutsiaz.

Hala ere, goxoena ondoren etorriko zen, izugarriko txokolatea bizkotxoekin jateko aukera izan genuelako. Beno, denok, denok... ez genuen aukerarik izan, txikiak honelako gauzetan lehentasuna omen daukate eta...

Dantzaldi guztiak nagusientzat ez direnez, Orkesta Polvoronek haurrentzako dantzaldia eskaini zuen, arrakastatsu suertatuz, urtero legez. Bitartean, batzuk garaiz egindako erretirada burutu zuten, hain gazteak ez zirenak hain zuten, hurrengo egunean lan egin beharra,

Baina bigarren asteburua hurbildu ahala, ekitaldiak eta ugalduz joan ziren. Ostiralean, adibidez, buruari eman eta ea geure auzoa orain urte batzuk zelakoa zen gogoratzen genuen ikusteko aproba izan genuen, zeren urte batzuk aurretik ateratako argazkien erakustaldia egin zen. Eta harrigarria da urte gutxi batzuetan zelako aldaketa izan duen, benetan! Orain 30 urte gutxi gorabehera etxe gutxi batzuk eta landa eta belarra besterik ez zegoen lekuan gaur egun ikastetxea, etxalde handi bat, errepideak... eta abar daude. Harridura batetik joan eta bestetik etorri, auzoko karateken eskutik. A

lehenengo abestiak jo eta gero, txosnen inguruan eta tabernetan zeudenak eszenatokioaren aurrealdera hurbiltzen hasi ziren gorputza mugitzeko prest, umeak batez ere. Izan ere, umeak egun osoan zehar hainbat gauzatan ibili arren nekaezinak gertatu ziren, eta batek baino gehiagok bere lehenengo gaupasaren saiakera egingo zuen... Larunbat «gogorra» 23an. Goiz-goizetik korrikan, futbitoan, lagun taldeen arteko herri kirolen txapelketa, ... baina gogoari kintzeko, aitzakiarik ez da topatu oraindik! Futbitokoen ostikadak ematen



... betiko aitzakiak alegia.

Astean zehar batez ere haurrentzako ekitaldiak egin ziren; hauek ez badute ondo pasatzen gero ez dira animatuko jaiak antolatzen eta! Hala ere, emakumeok eta beste pertsonen zuzendutako ekimenik ere izan da, hala nola Gizarte Etxean aritzen den emakumeen taldeak egindako eskulanean erakusketa, elkartasunezko hitzaldia, mendiari buruzko diapositiben emanaldia eta hitzaldia, ... baita zinemaldia ere. Hauetan guztietan partehartzea nabaria izan zen eta jendeak gustura hartu zituen.

zelako zartadak eta kolpeak! Neska-mutiko hauek burdinazkoak izan behar dute, bestela... Eta parranda egiteko gogo nabaria zen, eta honi bultzadaxo txiki bat besterik ez zitzaion eman behar leher egiteko. Eta horretan agertu ziren Txatunga Benbékokoak euren danbor eta txalaparta, ...eta gauza guztiakin, kriston martxa zabalduz! Hauen doinuak eta kantuak entzun eta gero, dantzaldiaren prestakizunak etorri ziren. Hasieran ematen zuten aurreko asteburuan baino jende gutxiago egongo zela, baina

zituzten bitartean Futbitoko 24 orduko Txapelketan, auzoan zehar kalejiran ibiltzen ginen besteok, buru-haundiekin, hankapaluetan... Euskal Jaiari hasiera emanez. Gero dantza ikustaldia izan zen plazan eta jarraian trikiritxa, alboka eta txistu doinuak entzun ahal izan genituen, sardinak eta sagardoa dastatzen genituen bitartean. Inork uzte bazuen ekarrita geneukan sagardoarekin soberan edukiko genuela oker ibili zen. Hainbeste kirol egin eta gero, hainbeste ibilaldi eta hainbeste sardina jateko.... 500 litroko kupel

bat ekartzea hobe izan zitekeen! (Lasai, hau bilbainada bat da...).


Baina janari eta edari kontuak ez ziren hor amaitu. Goizeko 11etatik aurrera bertoko produktuekin azoka egin zelako, eta txikia izan arren, denetarik ikusi ahal izan zen, erosi eta dastatu ere.

Ondoren, lehen aipatutako koadrilen arteko 1. Txapelketari hasiera eman zitzaion. Partehartzea ez zen oso handia izan, baina lehiatua bai, ordea. Baina azkenean inork ez zekien nor geratu zen garaile, eta haserrikerik ez izateko, denok batera bertsolariak eta txalaparta «kontzertua» entzuteru abiaturu ginen (kiroltasuna aurretik beti, jakina). Indarrak berreskuratzeko - batzuek betiko galdu genituen... - gure ama eta amamek prestaturiko sukalki eta postre goxoekin bazkaldu genuen dantzariak, bertsolariak, «kirolariok», ... eta beste batzuk.

Patxarana eta zigarrotxo edo txokorra eskuan hartuta, mus txapelketan murgildu ginen buru belarri... ezer gutxi egiteko gero! Berehala kanporatu gintuzten eta (nire bikotea eta biok; beste batzuek gehitxoago iraun zuten). Bitartean, plazan 1. Txapela Jaurtiketaren Txapelketa ospatzen zen, eta batek baino gehiagok arazoak izan zituen berea aurkitzeko eta buruan egokitzeko, je, je!

Zankoen kale animazioa eta gero... gau luzea zetorren kontzertuarekin. Zortziak inguruan Begoña inguruetako eta Zurbaranbarriko presoek omenalditxo eskaini zitzaion, eta

horren barruan, hil honetan askatu duten Txentori, Zurbaranbarriko Elkartek baten partaide izandakoari



ere. Segidan, kaleetatik kalejira erreibindikatiboa egin zen gero txosna gunera itzultzeko kontzertuari hasiera emateko.

Bilboko auzoetako jendea arratsaldeko lehenengo orduetatik hurbiltzen hasi zen auzora, eta kontzertua hasterakoan plaza jendez beteta zegoen. Gau horretako talde «nagusia» jotzen hasi zenean, Betagarri alegia, jendea saltoka eta dantzan lehertu zen. Eta gaua luzatu egin zitzaigun askori, nahi barik, beti bezala: «Tira ba, hau azkenengo potea, e?».

Biharamunean futbitoek jokatzeko jarraitzen zuten eurak edandako edabe magikoari esker. Hau ikastetxean, baina plaza inguruetan batzuentzat bazkaria izango zena eta besteentzat horren saiakera besterik ez, paella eta tortila lehiaketa burutzen zen. Asteazken zehar ateratako

argazkien erakustaldia plazan ere. Eta sukaldaritza lehiaketan aurkeztutakoa ona edo txarra zen edo ez jakin baino lehen, jateari ekin genion, eta uste baino lehen amaitu ere, txapelduna nor izango jakiteko irrikitan geunden eta. Baina hori arratsaldean izango zen eta aurretik karaokea egin zen. Lotsabakoak eta lotsatiak ere igo ziren eskenatokira euren trebetasunak erakusten, eta jendearen txaloak jaso ere egin zuten. Amaiera ona izateko, sarien banaketa egin zen, eta sorpresak eta ezustek izan baziren ere, inor ez zen gehiegi kexatu. Eta penak eta tristurak uxatzeko suhiltzaileak ekarri genituen, eurak botatako bitsean murgil zitezten, jaien amaiera adierazten zuen txupinazoarekin batera.

Horrela gertatu dira aurtengo Zurbaranbarriko jaiak, eta datorren urtekoak hauek bezain onak eta alaiak behintzat izatearen itxaropenean.



Kafe ANIZKIA

1998ko EKAINA

04 osteguna	22:00	MIKEL URDANGARIN MIKEL MARKEZ
05 ostirala	20:30	ANTZERKIA IMPRESIONES Galtzerdi Antzerki Taldea
10 asteazkena	22:00	LA CHARANGA HABANERA
11 osteguna	20:30	OSKORRI & The Pub Ibilaria
14 igandea	21:00	NEW YORK SKA-JAZZ ENSEMBLE + TTAK
19 ostirala	22:00	LÄTZEN
22 astelehena	12:00	Euskaldunon EGUNKARIaren Erakusketa
23 asteartea	20:30	EGUNKARIAREN KULTUR HITZORDUA "EUSKALDUNAK ALA VASCOAK" mahaingurua
23 asteartea	22:00	MISFITS + Frik
24 asteazkena	22:00	SASOI ILUNAK + Kandelan Argipean (ipuin irakurk.)
25 osteguna	20:00	SORTU TA SORTUZ JAIA SANTIUTXUKO GAZTE SORITZALEEN EKUTIA
26 ostirala	21:00	DIE ANARCHISTISCHE ABENDUNTERJÄLTUNG + TXAN MAGOA
28 igandea	21:00	TODOS TUS MUERTOS

San Vicente 2 48001 BILBO
Tel: 424 4625 Fax: 424 2802

euskaraz BAGARA!

ekainetik irailera...
EUSKARA IKASTARO TRINKOAK

informazioa:
SANTUTXU EUSKAL ESKOLA A&K
ARBIDEA, 21
TF.: 94 411 76 56

OTXARKOAGAKO A&K
PAU CASALS, 19
TF.: 94 412 18 77

SARRI A&K EUSKALTEGIA
BALENDIN BERRIOTXOA, 3
TF.: 94 446 27 51

BILBOKO A&K
PERRO, 1
TF.: 94 445 94 91

euskaltegi eta barnetegietan

ISALAND

PROIEKTU ETA ERREFORMAK


Fika, 54 - Telefonoa: 94-4334781

48006 Santutxu - BILBO

Gabriel Aresti antzerki taldea

☞ Zuriñe Uriarte

Taldearen izen berdina daraman institutuko 25 bat gazte ostiralero biltzen dira ikastetxe honetan beraien antzerkirako zaletasuna ordu gutxi batzuetan praktikan ipintzeko. Aspaldian sortu zen antzerki talde honek aurre-rapausu ugari eman ditu, hizkuntzarena izanik horien artean aipagarriena. Izan ere, garai batean lan guztia erdaraz burutzen zen eta gaur egun, euskara hutsean aritzen dira. Hiru orduz elkartzen dira ostiraletan eta obraren bat prestatzen ibiliz gero, astean zehar ere biltzeko ohitura dute. Hala ere, obraren prestatzea ez da egiten duten gauza bakarra, Joseba Lazkano irakaslearentzat garrantzizkoa baita norberaren gorputzaren ezagutza. Horrela, jolasen bidez antzerkigintzaren arlo hau lantzen dute eta honetaz gain, inprobisazioa eta gidoiak aztertzen dituzte.



Taldekoak entsaioan

Ekonomia aldetik, nahiko ondo konpontzen dira urtean zehar ordaintzen duten kuotarekin biltzen den diruarekin, eta arropa eta materiale kontutan, bertan daukatena erabiltzen dute. Hala ere, ez dute beste inolako diru-sarrerarik, ez baitute subentziorik jasotzen eta ez baitira lehiaketetara aurkezten. Gaur egun obra bat prestatzen daude, Greziar

tragedia bat. Orain dela 2000 urte idatzirikiko testuak aukeratu, laburtu eta euskaratu dituzte eta antzerkiaren aurkezpena Gabriel Aresti institutuan izango da datorren Ekainaren 15ean. Lehengo urtean antzeztu zuten «Geltokiko begiradak» lanarekin lortu zutena kontutan izanda, ziurra da antzerki talde honek denbora laburrean aurkeztuko duen obraren arrakasta.

Argazkiak: Iñigo Azkona.



Taldekoak entsaiatu ostean

bertan

I N K E S T A D Udaberrian zer? gehiago?



S u s a n a
Txurdinaga

«Bai. Udaberrian maitasun gehiago dago. Gainera, emakume asko udaberrian gelditzen dira haurdun!»



P a t x i
Abusu

«Bai, gehiago. Poztasun gehiago, martxa gehiago, umore gehiago. Denetan dago gehiago.»



J o r g e
Txurdinaga

«Ez dut uste. Nik dena ikusten dut berdin sasoi honetan, eta ez dut ezer ezberdinik egiten.»



G o r k a
Santutxu

« Bai, jai gehiago dago, eta eguraldia hobea da. Gainera, hirian ere lasaitasun gehiago dago udaberrian.»



J o s e L u i s
Begoña

«Ez gehiago, ezta gutxiago ere. Dena da berdina garai honetan.»



A r g i ñ e
Santutxu

« Bai. Azterketa gehiago dago, bero gehiago, ume gehiago kalean. Hala ere, juerga eta umorea berdina da.»



M a n o l i
Santutxu

« Udaberri partean gogo gehiago dago gauzak egiteko. Ni, adibidez, gogo gehiagorekin joaten naiz igeri egitera.»



A m a i a
Santutxu

« Bueno, udaberrian lore gehiago dago, alaitasun gehiago. Bizitzeko gogoak ere ugariagoak direla esango nuke.»

J O X I J I M E N E Z :

“Badago kontu hau gehiegi sinesteko arriskua”

Urte asko daroa Joxi Jimenezek Gabriel Aresti institutuan ingeles irakasle eta han bertan egon ginen berarekin. Doctor Deseoren azken diskoaz, taldeaz, musikaren gainean duten ikuspuntuaz eta filosofiaz eta beste mila gauza atera genizkion Goierriko euskaldunberri honi.

☞ **Urtzi Urrutikoetxea. Argazkiak: Iñigo Azkona.**

Berton: Doctor Deseo definitzerakoan, pop ikutuz jantzitako rock taldea irakurri dut. Hala al da, ala alderantziz?

Joxi: Bai, hala da, agian alderantziz. Kontua da pop, ingelesez popularretik datorrela, herrikoia dena, eta jatorrizkoa zentzu horretatik da egokia, popularra, konplikaziorik gabeko musika. Eta rock-a, ba bai, oinarria da, soinua, eskemak...

Berton: Eta azken diskoa, atera berri duzuen, Hay cuentos a n por inventar, aurrekotik urte bira irten da. Zuengan ohikoa denaren aldean, ez da gehiegi izan, ez?

Joxi: Tira kontua da, Fugitivos del paraíso 1992an atera ostean taldea nolabait desegin egin zela, gitarra eta baterijoleak alde egin zuten, Hertzainak-etik Txanpi eta Kike etorri ziren eta orduan denbora luzeagoa behar izan genuen berriro osatzeko eta abesti berriak ateratzeko, horregatik seguraski lau urte pasatzearena. Bostgarrena aldiz errazago joan da dena, taldea osatuta zegoen jadanik.

Berton: Gutxi gorabehera nondik nora joan da?


Joxi: Ba kantak eta hori guztia egin ondoren, urtarrilean sartu ginen



grabatzeraz Berrizko Lorentzo Recordsen eta otsailean bidali genuen. Oraintsu kaleratu da.

Berton: Harrera ere jatorra, ez? Esan nahi dut, iragarria zegoela, jendea zain zenutela, eta prentsan-eta esaten zela “badator diskoa”...

Joxi: Bai, ematen du gero eta jende gehiago gure atzean dagoela... Eta baita ere, hala uste dut behintzat, badakitelako diska atera arte ez garela irteten kontzertuak ematera eta horregatik zegoen zain.



BETIKO ESKEMETAN TINKO

Berton: Eta ohi duzuen legez egiteko, diskoaren inguruan eman zenbait kontzertu, eta, berriro desagertu?

Joxi: Tira, gure betiko eskemarekin jarraituko dugu, ez dugu aldatzen. Seguraski datorren urtera arte jarraituko dugu, oso berandu irten baita, eta urte naturalak ez dira murriztu behar. Ez dakit, otsaila edo martxoa arte egongo gara beharbada...

Berton: Baina beti ere gira eta holakoetatik aparte dagoen ikuspuntu horretan?

Joxi: Bai, beste ikuspuntu bat da. Batez ere ez nekatzea, ez gu, eta jakina, ezta publikoa ere.

Berton: Ikusten duzu neke arrisku hori?

Joxi: Batez ere gure aldetik da. Ateratzea eta rutinaz sartzea penagarria izango litzateke, eta orduan nahiago dugu gure erritmora moldatutako zerbait egitea. Izan ere, benetan badago arrisku hori, gehiegi sinestea, orain ere Discos Suicidas-ekin jarraitu dugu ateratzen, ze, ilusioa galtzeko arriskua baitago, kemena galtzea. Zerbait eguneroko bihurtzen bada, ez zara indar horrekin irteten... Eta publikoari begira ere garrantzitsua da, guk gehiago gozatzen dugu eta publikoak ere egingo du ilusioz ikusten bagaitu.

Berton: Oraintxe hasi berriak zarete disko berriaren zuzenekoak ematen?

Joxi: Bai, bi edo hiru emanaldi egin ditugu, eta gero primizia moduan-edo, gure buruak ere probatzeko, Ziordian jo genuen, Gaztetxean, eta itzela izan zen, zoragarria, nafarrak kristonak dira badakizu! Oso ondo tratatu gintuzten, Sakanakoak... Atera aurretik egin nahi genuen frogaz eta ederto egon zen. Gero Oñatin, Berriatun ere eta Iruñeko Arsaian jo dugu.

Berton: Bitxia da ez? beste leku batzutan musika estilo bakoitzak oso jarraitzaile definituak, tribu urbanoak ditu, eta hemen Oñatin adibidez, Latzen modu-ko

talde heavy-arekin ederto jotzen...

Joxi: Bai, gero tolerantzia kontuak

"Beste ikuspuntu bat da. Ez nekatzea, ez gu ez publikoa."

esaten dizkigute ez? Baina zorionez, bai, gutxi gara eta denona sartzen da hemen eta jarraitzaile bere horren ezberdinak diren musika motak ere apreziatzen dituzte, positiboa eta aberatsa da.

Berton: Zuek edozelan, zuen lerroan jarraitzen duzue, agian euskal musikan gehiegi landu izan ez den lerroan...

Joxi: Bai Euskal Rock Erradikalaren garaian ere ez ginen hor sartu eta orain ere gure bidetik jarraitzen dugu, orain nolabait modan-edo bagaude ere...

Berton: Hortik ere jo nahi nuen, betidanik oso talde bilbotar

aurkeztu zaituztetela, hitzak-eta Nerbioian kokatuta eremu urbano zehatz batean, baina ez ote dago giro *underground* hori gehiegi ere modan?

Joxi: Baliteke, gurean hitzak Francisek egiten ditu eta oso ondo ezagutzen du mundu hori eta horregatik betidanik irten izan zaiona da, aldaketak aldaketa gure hitzen eremu hori nabarmena da, beste gauza batzuk gehiago egin direnean ere, mundu ofizialetik azpimundu



berezi horiek oso gustuko izan ditu eta islatzen saiatu gara kantuetan, eta baliteke gaur egun beste talde batzuk ere modan-edo ipini den giro honetara hurbiltzea. Edozelan, egia da Bilbon oso kokatutako kontua aipatzen dela, Euskal Herrian giro hori seguruenik beste inon egongo ez delako, horren hiri handikoa eta hori guztia, baina kontutan izan Francis bera bakarrik dela berez Bilboko, Txanpi eta Kike gasteiztarak dira eta ni neu ere Goierriatik etorri nintzen.

"Zerbait eguneroko bihurtzen bada, ez zara indar horrekin irteten."

ETXETIK MUSIKAZALE

Berton: Eta musikazaletasuna?
Joxi: Ba, hori etxetik dator, Los Ches izeneko taldea sortu genuen anaion artean. Jaio Argentinan jaio nintzen eta asko erabiltzen da che hitza han eta gurasoak valentziarrak dira, cheak beraz, hortaz derrigorrez Los Ches

izan behar ginen (barre egiten du). Hasieratik baxua eman zidan anaiak eta gero Bilbora etorrita lagun batek esan zidan talde baterako baxujole bila zebiltzala eta ordutik Doctor Deseon nabil.

Berton: Euskaraz ere, era ezberdinetan baina kantu bana sartu duzue azken diska bietan.

Joxi: Ni Goierrikoa izanda ere erdal giroa izan dut beti etxean eta euskaraz ez nuen gaztarora arte ikasi, eta kantuak beti erderaz egin arren, Francisek eta biok bagenuen euskaraz zerbait egiteko gogoia, baina desberdina izan zedila. Edorta Jimenez aurretiaz lagun genuen eta berak egin zituen hitzak Tracy Lords aktore pornoaren gainean. Azken diskoan aldiz oso gustuko genuen Xabier Leteren kantu bat moldatu dugu, besterik gabe, gustatzen zitzaigulako.

"EZ GARA BAT ERE HANDINAHIAK"

Berton: Bokazioz minoritarioak?

Joxi: Bai, bokazioz minoritarioak, gehiengoarena dena nolakoa den ikusten duzunean batez ere, nahiago dugu industria minoritarioak izatea.

Berton: Horren kontu bilbotarra izateak Athletic-era hurbiltzen zaituzte?

Joxi: Puff! Asteburu honetakoaz (klasifikatu zenekoa) leporaino amaitu dugu, eta hori zorionez kanpoan eman dugula kontzertuekin. Bat-batean ikusten duzu nola apuntatzen den jende guztia irabazlearen kontu horretara, irabazten badute eta guztiok atletizaleak!

Galtzen badute zer? Hori ez

zait bat ere gustatzen, eta ederto dago Athletic-ek irabaztea, e! Baina...

Berton: Euskal Herrian bakarrik?


Joxi: Bai hori da arazoa, ez gara irteten, eta Euskal Herria oso zirkuitu txikia da, eta ez dugu lortzen, beno, beharbada saiatu ere ez gara gehiegi saiatu.

Berton: Baina arrakasta nahikoa lortu duzue.

Joxi: Bai, baina heldu bazaigu ere ez da izan guk borrokatu dugulako, etorri zaigu besterik gabe. Ez da ihes egiten diogula ere, baina agian egin beharko dugu (barrez). Ez, ez gara bat ere handinahiak, daukagunarekin, jendeak zuzeneko bakoitzean disfrutatzea nahi dugu, eta gero agian ez dakigu saltzen edo ez dugu nahi medio horiek erabiltzea burua jateko, ez zaigu gustatzen nola dagoen antolatuta, ze, nik uste, medioek jaten dute burua, eta guk hori ez dugu inola ere nahi.

Berton: Zeu letragile?

Joxi: Puff! Nik ez dakit, inoiz saiatu naiz baina ez naiz oso gustora gelditu. Ez dut uste egingo ditudanik.



bertan

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Bigarren eskuko arropa eta altzari merkatua Boluetan

Pasa den urtarrila ezkeroztik zabalik da Boluetan bigarren eskuko altzari eta arropa merkatua. Bertan Betel zentru kristauak, kotxe garbitze, pintaketa eta garraio lanak egiten ditu. Zentru hau gazteak droga mundutik edota marjinaziotik ateratzen saiatzen da. Estatuan zehar banaturik ditu bulego gehienak. Estatu espainiarretik kanpo berriz, Estatu Batuetan, Frantzia, Britania Handian, Italian, Mexikon eta Portugalen ere badituzte etxe edo zentruak.

Hauen helburu nagusia marjinauari dohako laguntza eskaintzea da. Horretarako, boluntarioz osaturik, altzari eta arropa merkatua, eta pintaketa, garbiketa, publizitate banaketa eta garraio zerbitzuak eskaintzen dituzte. Dirulaguntza ofizialik ez duten arren, bertan sendatzeko asmoz sartzan denak ez du zentru edo baserriren batean egin beharreko desintoxikazioa eta ondorengo



Boluetako Betel zentrua

egonaldia ordaindu beharrik izaten. Jendearen dirulaguntza eta lan boluntarioarekin funtzionatzen dute. Boluetako zentru honen helburua ere bikoitza da. Alde batetik, gazteak berrabiltzeko dirua ateratzea, eta bestetik prozesua bukatzen dutenean berriro lehenera itzuli orde, pixkanaka

lan munduan sartzeko aukera ematea. Kotxea garbitu beharrean aurkitzen bazara, altzairuren batzuk soberan badituzu edo armairuren bat merke samar lortu nahi baduzu zoaz Boluetara; Metroaren inguruan aurkituko duzu Betel zentrua.

Karmelo ikastolan pasatako garaiak gogoratu zituzten ikasle-ohiek

Karmelo ikastolako ikasle-ohien lehen topaketak 280 ikasle ohi inguru bildu zituen. Antolatzaileek 200 inguru espero bazituzten ere, azkenean aurreikuspenak gainditu egin ziren eta

mahai gehiago prestatu behar izan zituzten askaltzeko momentuan.

Topaketa honi hasiera emateko joan ziren guztiek beren izen-abizenak eta ikastola utzitako urtea idatzi zituzten liburuxka baten. Ondoren ongi etorria egin zitzaie agertutako guztiei eta ezin izan zutenei aipamen berezia egin zitzaie. Gero promozio ezberdinetakoak frontoixotik pasatu ziren argazkia ateratzeko asmoz. Datu bitxi gisa, aipatzekoa da 1962ko promozioiko bat

agertu zela. Ikastolako ateak ireki egin ziren ere oroitzapenak gogora ekartzeko asmoz, eta ondoren «merendola» erraldoia egin zen brindis eta guzti. Antolatzaileek kexa, proposamen edota iritzien liburua pasatu zuten ikasle ohien artean beren gogoetak jasotzeko asmoz. Lehen topaketa hau larrain dantzarekin bukatu zen, nahiz eta ordurako ikasle ohi ugari bertan egon ez. Esan beharra dago, antolatzaileek ondorengo urteetan topaketa gehiago ospatzearen itxaropena adierazi zutela. Hala izan bedi!



Karmeloko ikasle ohiak

Argazkiak: Iñigo Azkona.

Santutxuko aste antimilitaristaren balorazio positiboa

Pasa den maiatzaren 11tik 17ra bitarteko astea, militarismoaren aurkakoa izan da Santutxun. Bertan, Bostan (Kakitzat) talde antimilitaristak hainbat ekitaldi egin ditu aste osoan zehar. Aurten, laugarren urtea izan da.

Astelehenean, hilak 11 egin zen aste osoa izango zenaren aurkezpena, propaganda egun batez. Hitzaldi eta eztabaidak programaren zati handi bat hartu dute, astearte eta osteguneko protagonista izan baitira. Gañtu militarren aurkako hitzaldian jende gutxi parte hartu zuela kezka ziren antolatzaileak, nahiz eta oso interesgarria izan zela baieztatu. Ostegunekoak aldiz arrakasta handiagoa izan zuen eta jende ugari hurbildu zen Maria Reina elizara euskal gatazka antimilitarismoaren ikuspuntutik aztertzeko asmoz; 50 bat pertsona, alegia. Bertan izan ziren Elkarrri, Autodeterminazioaren Biltzarra eta Gesto por la Paz taldeko hizlari bana eta baita Kristau Talde-etakok parteideak ere, besteak beste. Ostiralean, kalejira bat egin zen arratsaldean, eta gauez auzoko taberna batzuetan jaia antolatua zuten Kakitzatekoek, tabernetako kanpokaldean apaintzen ahalegin berezia jarri. Hala ere, nahiko egun la-saia izan omen zen, orain-goan San Mamesek protagonismoa kendu baitzien.



Kalejira antimilitarista

Larunbatean azkenik, «Mairuek» Bilboko erraldoi taldea Santutxuko kaleak alaitzen ibili zen 12:30tik 2:30ak aldera arte, eta ondoren herri bazkari goxoba prestatu zuten Herriko Tabernan. Uste baino jende gehiago joan zen arren, ez zen bazkaririk faltatu inorentzat.

Astea amaitu bezain laster, balorazio positiboa egiten zuten Bostan (Kakitzat) taldekoek, «Uste baino hobeto irten dela» esanaz. Era berean, eskerrak eman nahi izan zuten ekintzetan parte hartu duen jende guztiari eta dato-

rren urtean aste hobe prestatuko dutelakoan daudela agertu zuten, «oraingik kalera borrokara irteteko milaka arrazoi baitaude antimilitarismoaren ikuspegitik».





Iturriondoren omenaldia

Urtero legeaz aurten ere egin zaio omenaldia J. Ramon Iturriondori. Haren tamalezko heriotzatik 15 urte igaro diren honetan, aurreko urteetan bezala mendi martxa egin zen Karrantza ingurura lehengo apirilaren 26an. Eguraldia lagun izan ez arren martxistak umorez eta giro onean eman zuten eguna, lagunaren oroitzapena gogoan.



lazko martxako argazkia.



Txento euskal preso Otxarkoagan

Pasa den maiatzaren 13an atera zen Vicente Albarran «Txento», euskal preso Mallorcako kartzelatik sei urte pasa ondoren nahiz eta epaiaren 3/4-ak duela bi urte bete. 14an iritsi zen Sondikako aireportura. Bertan egin zioten lehenengo harrera auzokide eta lagun batzuk. Ondoren Otxarkoagako Herriko Tabernara igo eta 6 urte hauetan horman egon den argazkia kendu zuen lagun artean tragotxo batzuk edanez.

Ongi Etorri nagusia, ordea, larunbatean egin zitzaion. Arratsaldeko 8'30ak inguruan txalapartaren soinuarekin egin zioten harrera eta lau dantzarik aureskua dantzatu zioten. Ondoren, Anjel auzoko preso ohiak oraindik barruan dauden bi auzokideren -Arantza eta Sebas- partez agurtu eta besarkatu zuen. Gero auzoko hainbat talde agurtu zuten txandaka, guztiak ere opariren batekin. Amnistiaren aldeko komitearen kide batek hitzalditxo bat eman zuen. Eta Pa...Yaren txanda tokatu zenean hasi ziren barre

algarak. Oparia eman ondoren erregeari buruzko parodia bat egin zuten. Sorpresatxo honek denak barrez lehertzen utzi zituen. Txentok berriz, oso hunkituta aurkitzen zen arren preso guztiak Euskal Herrira ekartzeko borrokatzen jarraitu beharra adierazi zuen. Ekitaldi politikoaren ondoren manifestaldi bat egin zen auzoko kale aldapatsuetan zehar. Manifestaldia bukatzerako eleiza atzean prest zeuden mahaiak, parrilak berriz saiheski, txorizo eta odolostez beteak, sagardoa kupeletan eta kalimotxo txosnan. Tripa bete ondoren mahaiak kendu eta dantzatoki bihurtu zen eleiza atzea.



Txentoren omenaldia

Jende guztia oso animatua ibili zen eta ordu bata aldera arte luzatu zen jaia.

Euskal Presoak Euskal Herriratzearen aldeko akanpada Santutuxun

Euskal preso guztiak Euskal Herrira hurbiltzearen aldeko akanpada bat egin zen maiatzaren 21etik 24ra Santutxuko Karmelo plazan. Auzo honetako zenbait gazteren ekimena izan zen hau, inguruetako talde, batzorde eta zenbait organismoen adostasunaz. Hiru eguneko izan zen akanpada, ostegun gauean hasi eta igande goizean bukatu zen. Hainbat ekintza antolatu zituzten arduradunek akanpadan parte hartu zutenentzat: Enkarteladak, herri-bazkaria, musika, malabareak... giro ona eta eguraldi bikaina izan ziren akanpadako protagonista. Partai-detza nahiko altua izan zen eta akanpatu ez zuen hainbat jende ere ekintzetan parte hartu zuen. Berauen artean azpimagarrienak herri-bazkaria eta larunbat gaueko kontzertua izan ziren, bazkaltzera ia 100 pertsona hurbildu baitziren.

Ekimen honekin, Euskal Presoak Euskal Herrira hurbiltzearen beharra azpimarratu nahi izan zuten auzoko gazteek eta antzeko ekintzak egiten jarraitzeko asmoa azaldu zuten.



akanpadako ekitaldietako bat



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!

EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA



Eta gazteok lanean... zer?

Gazteen lan indarrak gero ta balio gutxiago duenez, gazteak hala-nola konpondu beharrean daude diru sarrera txikiak lortu ahal izateko.

Arrate Diez

Egunero dabilta komunikabideetan langabeziaren beherakada areagotzen ari dela sinestarazten, baina azaltzen ez digutena, gazteen lan baldintzak dira. Langabezia beherantza doa, baina honen ordainean lan kontratu zarrak eta gazteen esplotazioa da gauza guztien gainetik agerian utzi behar dena.

Milaka gazte langabezian egonda, ez duzue uste ugazaba zein enpresariak gazteentzat eskaintzen dituzten lan-baldintzak benetan lotsatzekoak direla?

Lotsagarria iruditzen ez bazaizue ere, irakurri besterik ez dago Mahatserriko gazteen lan-baldintzak zelakoak diren, beraiek baitira (beste hainbat lekutako gazteekin batera) langabeziaren ondorioak zuzenki jasaten dituztenak.

Oskar, Ainhize, Olatz eta Nuria 20-25 urte bitarteko gazteak dira eta amankomuneko kezka nagusi bat dute: gaztea izateak lan baldintzak gogortzea dakar.

Oskarrek izozki-kamara batean egiten du lan. zero azpitik hogeitabost graduko tenperatura dago kamaran eta bertara izoztutako produktuak sartu behar ditu. Asteazken zehar 39 orduz egiten du lan, eta gainera, egunero ordu erdi gehiago egon behar du bi astebururo larunbat bat libre utz diezaioten.

Oskarrek behin behineko kontratua du enpresa horrekin, baina ez dago batere ados pagatzen diotenarekin: «ez nago konforme ordaintzen didatenarekin, enpresa horretan kontratu fijoak dutenek ia nire



Lan errazak ez zaizkie suertatzen gazteei.

soldataren bikoitza kobratzen baitute». «Niri kamaran egun osoa egoteagatik plus txiki bat ordaintzen didaten arren, beste batzuei egunean ordu bat besterik ez egonda ematen dietenaren erdia da».

Lan hau ez da Oskarrek izan duen lehenengo lana, baina aurrekoak ikasketa kontratuak izan direnez, eta besterik aurkitu ez duenez, lana baldintza horietan onartu behar izan zuen. Hala ere, lan honekin Oskarri bere bizitzako gastu minimo batzuk ordaintzeko besterik ez zaio heltzen, eta gainera egunero garraioak ordaindu behar ditu lanera joateko.

Oskarri hilero kontratu berri bat egiten diote eta bere esanetan «inoiz ez dakizu noiz kalera-tuko zaituzten, beraz, ez daukagu ezer fijoarik, gainera kezkaren bat baduzu, argi daukazu besteren bat zure postuaren zain dagoela; ez daukagu aukera handirik».




Pizzak-eta banatuz zerbait ateratzen da.


Ainhizek bost urteko mutiko bat zaintzen dihardu. Egunero zortzi orduz egiten du lan, lehenbizi etxeko lanak egiten ditu, geroago umearen bila joaten da ikastolara eta berarekin pasatzen du egun osoa. Ainhize ez dago ados daukan soldatarekin baina besterik ez dagoen bitartean konformatu beharrean dago. Ainhizek dioenez «lan hau etxean geldirik ez egoteko hartu nuen, zerbait egiteko. Egia esan, ez dit bizitzeko beste ematen, baina zerbait erosi nahi dudanean eros dezaket, eta nonbaitera joan nahi badut, joan naiteke. Nolabait esateko, nire gauzetarako erabiltzen dut baina bizitzeko beste, ez dit balio».

Ainhizeren ustez, egiten duen lana ez dago ondo ordainduta, «lanean ordu asko ematen ditut eta horren truke gutxi ordaintzen didate». Ainhizek argi dauka bere lana aldatuko lukeela baldintza hobe batzuk baleude.

Olatz administraritzak ikasketak burutzen dabil eta derrigorrezkoa denez, praktikak egin behar izan ditu. Bere praktikak liburutegi batean eta Basauriko enpresa batean egin ditu. Liburutegian lau orduz egiten zuen lan kontabilitatea eramanez,



Umeak jagotea ez da gurasoen kontua bakarrik.



Klase partikularrak, ikastunenen aukera

Basauriko enpresan ordea, zortzi orduz ziharduen lanean, «beste langile batek bezala egiten dugu lan eta badirudi fabore bat besterik ez dizutela egiten». Dena dela, Olatzek praktikak ezinbestekoak direla uste du, baina nolabaiteko laguntza ekonomiko batekin atseginagoak izango liriteke.

Nuriak argazkilaritza ikasketak amaitu ditu eta praktika batzuk egin dituen arren ez du lanik aurkitzen. Bere ustez «gaur eguneko gazteriak arazo larriak ditu lanean hasteko eta lana aurkitzen duenean gainera, behin-behineko kontratu zikin batzuk izaten dira, oso baldintza txarrekoak». «Nire lagun asko lanean daude baina oso presionatuta daude, lan baldintzak oso gogorrak dira, baina ezin dira kexatu, gazte batek urte bateko lan kontratua edukitzea gaur egun ia-ia pribilejioa dirudi, beharrezko eskubide bat izan beharrean».

Gazte hauek adibidetzat hartuz, argi dago baldintza hauetan ez gazteriak ez beste inork ere ez lukeela esplotazio eta langabezi hau guztia onartu behar.

Argazkiak: Iñigo Azkona

BERTON DUGUI

BERTON DUGUI

Athletic-eko jarraitzaileen bilera nagusia


1898 · 1998

Athletic Club-eko peñen 26. Batzarra ospatu zen Maiatzaren hasieran Etxebarria parkean. Bertan, 18 txozna, eskenatoki bat, jantoki bat eta komunikabide ezberdinek ezarritako etxolak ezarri ziren. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, 60.000 pertsona inguru hurbildu ziren antolatutako gunera.

Unai Cuevas

Batzar orokor honek 20 miloitik gorako aurrekontua izan zuen eta peñen erdigune Etxebarria parkea bihurtu zen. Orokorrean, 400 peña inguru bildu ziren eta hauekin batera Euskal Herritik kanpoko 1000 pertsona baino gehiago. Arlo honetan aipatu beharra dago ezarritako 18 txoznetatik 9 Euskal Herritik kanpokoak zirela (Andaluzia, Extremadura, Murtzia...). Mahatserria ere partaide izan zen eta gogoratu beharra dago besteak beste Otxarkoagako «Peña Tabuenka» edota Santutxuko «Tripustelak» taldeek txosnak jarri zituztela festa gunean.

Athletic-ek dituen peña guztiak bi ataletan banatzen dira eta bi atal hauetako partaideak izan genituen bilera honetan. Batetik, Peñen Elkartea daukagu Euskal Herri eta inguruko probintzietako peñak bere baitan biltzen dituen; eta bestetik, Peñen Federazioa estatu espainiarreko peña guztiak bilduz. Hauek, kideak dituzte Venezuela, Italia eta Iparraldean eta ondorioz laster han ere peñak osatuko dira. Eta laiter Estatu Batuetan ere izango dira, han bizi diren pelotari euskaldunek asmo hori adierazi baitute. Honekin lotuta, esan beharra dago hurrengoko batzar nagusiak nazioarteko maila jasoko duela aipatu peñak eta gehiago bilduko baitira. Etxebarria parkean hainbat



ekintza burutu zituzten bertan bildutakoek. Ostiralean (Maiatzak 1), txosnen irekitze ofiziala egin zen eguerdi aldean. Arratsaldean, Begoñako Basilikan meza nagusia egon zen eta gau partean afari erraldoia burutu zen. Afalostean, reggae kontzertua egon zen eta honetan hiru taldek jo zuten: Akats (euskaraz abestu zuen talde bakarra), Ambassadors (ingelesez eta gazteleraz) eta Arawak (gazteleraz). Hurrengo egunean, banda municipalak jo ondoren bilkura bukaera gosaria ospatu zen. Gosari honetan nahiz aurreko eguneko afarian 1.200 pertsona inguru bildu ziren. Arratsaldean, aldiz, herri kirolen ikuskizunaz gozatu zuten bertaratutakoek. Larunbat gauean, Los Santos

taldeak eta Kiko Venenok amaiera eman zieten Etxebarria parkean antolatutako ekitaldi nagusiei. Ofizialki iragarritako ekitaldi hauetaz gain, Euskal Telebistak peña zuri-gorri eta Athletic-aren ingurunea omenduz saio berezi bat egin zuen Etxebarria parkean. Honetarako, Santimamiñe futbol zelaiak duen arkuaren kopia txiki baten azpian, eskenatoki txikia jarri zuten. Bertatik, Indarra, «Los cinco Bilbaínos» eta «Los Txikis» taldeak pasatu ziren bildutako jendea animatuz. Athletic-eko jokalarari ohiak ere igaro ziren eskenatoki txiki honetatik eta beren omenaldia jaso zuten. Besteak beste Dani, Sarabia, Zarra eta Iribar igaro ziren Euskal Telebistak jarritako set berezi



honetatik.


PEÑETAKO KIDEAK BEREN KEXAK ADIERAZI ZITUZTEN

Peñekin harremana izateaz arduratu zen Jokin Barcena-k kexak egon zirela aitortu zuen. Peñetako kideek antolakuntza falta eta klubaren aldetiko berotasun eza salatu zuten. Peña ezberdinetako kideak kexu ziren jokalarari, jokalarari ohi eta zuzendaritzako partetik ez zutelako atentzio zuzena jaso. Barcena-k adierazi zuen bezala: «azpiegitura eta antolakuntza faltaren

arazoa aurreikusitako genuen baino jende gehiago hurbildu zelako izan zen». Datu aipagarri bezala, espero ez ziren 40 peñen bisita izan zutela esan zuen.

Peñek adierazitako beste kexu bat zera izan zen: batzar nagusia salbu, lehen mendeurrenaren ekitaldi ezberdinetara joateak dirua ordaintzea suposatzen zuela. Honi erantzunez dohaneke beste ekitaldi batzuk egongo zirela aipatu zuen Jokin Barcena-k.

Argazkiak: Iñigo Azkona.



Santutxu Hockey Taldeak ez zuen igoera lortu

Ipar ligan lehenengo postua lortu eta gero A Coruñan jokaturako igoera fasetik esku hutsik bueltatu ziren Santutxuko Hockey Taldekoak. Jolasetako getxotarrek ere lehen maila A zuten helburu eta Santutxutarrak bezala ez zuten lortu. Santutxutarrak eta getxotarrak Ordenes eta Liceo talde galiziarrek baino gutxiago izan ziren eta azkenean Liceo izan zen talde garailea.



LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22

DAYTON Reagge-festa taberna

Santutxuko poteo gunean



L.A. CAMACHO
411 32 20

kulturberriak

Zentzu bete artista

ALAIN MARTINEZ, BERBARO KOMIKI LEHIAKETAKO IRABAZLE SANTUTXUTARRA. Makuluakaz etorri jakun elkarrizketara Alain, goizean ikastolako dutxan istripuren bat izan ostean. Edozelan, makulu eta guzti artega dala erakutsi euskun, beti zeozer egin beharrean arte munduan. Magoa, komikilaria, irudigilea, bertsotan ere hor dabil... eta auskalo zeintzuk lotu ziren tintontzian.



Argazkia: Inigo Azkona.

Makulu eta guzti, sekulako artista.

Urtzi Urrutikoetxea

berton: Zure burua definitzerakoan, zer zara, magoa, komikigilea, bertsotan ere bazabiltz...

Alain: Ba, gauza asko, gitarra jotea be gustaten jat etxean, eskaletea be bai, pintatea... eta beste mila gauza, ezer finkatu barik eta danetan flojo.

berton: Tira danak danak... zure komiki batek bigarrenez irabazi dau Berbarok antolatzen dauan lehiaketea

Alain: Lana eginda eta zorte apur bategaz beti egoten dira hor emoitza, beti lortu leiteke zeozer, ez da holango gatxa.

berton: Bertso eskolan be hasi zara aurton, hori nondik dator?

Alain: Ba gustoa txikitandik, gero ikastolan ibili ostean sakondu gura eta Santutxuko Bertso Eskolako helbidea emon eustien eta honaino.

berton: Eta?

Alain: Ikasi, beti ikasten da zeozer, bertsoa ez bada be, beti dago zeozer.

berton: Eta komiki-zaletasuna?

Alain: Nik uste komikizaleatasuna beti danok euki dogula, leidunten besterik ez bada be, eta gero, ba beti gura dozu apur bat gehiago eta norbera hasten da irudiak egiten... Orduan lagun bategaz ikastaro batean hasi nintzen eta hor ikasi neban oin dakidan guztia. Eta handik urtenda lehenengo komikia izan zan igazko saritua

berton: Hasikera triumfala orduan

Alain: Bai, gitxi gorabehera

berton: Zelan egiten dozuz komikiak?

Alain: Gehienetan nire gidoiak izaten dira baina ideiak be agortu egiten dira eta oingoan Txabi Landabideak lagundu daust beste lehiaketa batean, nahiz eta ez dogun ezer irabazi. Maila handiko jendea aurkezten da horra.

berton: Eta argitaratu?

Alain: Komiklub-en agertu ziren gure komikiak baina nahiko txarto, kolore barik eta holan.

berton: Zuk kolorez egiten dozuz beti?

Alain: Ez, danerik egin dot, baina aukeran gurago dot kolorez, bai.

berton: Badaukazu gustoko gairik?

Alain: Ez normalean paranoiak izaten dira, ametsak-eta... etorten diran kontuak.

berton: Eta aurrerantzean?

Alain: Nire burua ez dot holan inon

ikusten, baina ikasteko onena egitea eta besteonak irakurtea da, eta ezin zara Zipi Zape-tan oinarritu. Halan kanpoko jendea ezagutzen dozu.

berton: Magia munduan be sartu beharko gara. Hau oindik bereziagoa da, komikiak ohitura zabalagoa-edo da-eta..

Alain: Gurutzetan egon nintzen ingresatuta aste biz duela lau urte eta magia liburu bat ekarri eustien. Irakurtzen barruko harra pizten da, gehiago behar eta etxean be praktketan hasi nintzen. Gero Bilboko Mago Klubean emon neban izena, han ikasi eta oin nik irakasten dot.

berton: Eta non egiten dozuz funtzinook?

Alain: Lagun artean, familian eta magoakaz, oindik publiko zabalaren aurrean ez naz ausartzen.


Santutxutarrak Donostiako poltsikoko antzerkiko zazpi garren jaialdian

Paul eta Teresa Lopéz de Munain neba-arreba antzezle santutxutarrek, Donostiako poltsikoko antzerkiko zazpi-garren jaialdian parte hartu zuten. «Helduak bakarrik elkarte anonimoa» antzezlana aurkeztu zuten Antiguoz auzoko Garai tabernan. Teresak adierazi zuenez «sexuaren erabilpen soziala isladatu nahi izan dugu, erreklamu eta kontrol sozial gisa».

bertin

Santuskaratxu 98

Santutxuko euskalabonon uolaberriko ospakizuna



Santuskaratxu 98


Euskal kulturaren agerraldi honen beste edizio bat dugu atarian. Duela zortzi urte inguru Santutxuko Euskal Herrian Euskaraz antolatzen hasi zen ekitaldia, bi aldiz egin ostean eta eten bat pasatu eta gero, Santutxuko Euskal Txokoak hartu zuen lekukoa, eta handik hona urtero ematen izan da aukera Santutxu auzoan hain urriak diren euskal kulturaren agerpenak ikusteko eta gozatzeko. Aurtengo edizioan, Euskal Txokoarekin batera, beste hainbat taldek ere hartu dute parte antolakuntzan. Aurtengo egitaraua apaltxo bada ere, badira santutxutarren eta inguruko en interesekoak izan daitezkeen gauzak:

Aldizkari hau kaleratu orduko seguruenik eginda egongo da maiatzaren 27rako iragarriko zegoen Oskorri & the Pub Ibiltariaren emanaldia. Honen antolakuntzan Begoñako barrutiko eskolek hartu dute parte, euren euskararen normalizazio planaren barruko ekitaldien artean kokaturik.

Ekainean zehar beste hainbat gauza izango ditugu. Hasteko hilaren 5ean

Begoñako Udaltegian mahai ingurua egingo da "Santutxu eta euskalgintza" izenburupean. Bertan, Santutxun urteetan zehar euskalgintzak izan duen bilakaerari gainbegirada egin eta aurrera begira egin beharreko pausuez egingo da berba. Partaideak Patxi Uribarren, Martin Basterra eta Joseba Arrieta izango dira, moderatzailea Jon Etxebarri.

Ekainaren 12an Bertso afaria egingo da Markoartu Txokoan gaueko 10etan, Sebastian Lizaso eta Igor Elortzarekin, Santutxuko Bertso Eskolaren laguntzaz antolaturik Ekainean aurrera, 19an eta Santutxuko AEK-k ere parte hartuta, Euskal Jaia eta mozorro afaria egingo da. Euskal Herriko herrialde guztietako jantzi eta motiboekin apainduta eta trikitixa eta fanfarreak lagun-durik poteo-kalejira egingo da arratsaldeko 8etatik aurrera. Amaitu ostean herri-afaria egingo da. Honez guztiaz gainera, Euskal Txokokoak herri-aldizkariaren erakusketak ere egiteko asmoa dute. Lekua eta data oraindikoz zehaztu barik daude hala ere.



Dantzari Eguna Sopuertan

Lehenengo maiatzaren 3an Euskal Herri guztiko dantzariak batu ziren Sopuertan Euskal Herriko dantzari egunean. Gure inguruko dantzariak ere han izan ziren. Argazkian dituzue Santutxuko Gaztediko txikiak dantzan.



R.B. Taldea

«Seriotan» bi urtez daramate, baina elkartu zirenetik 5 bat urte igaro dira jada. Arabella auzoko lokal txiki, estu eta ilun batean entsaiatzen dute.

Izenean ez da isladatzen, baina 4 mutilez osatutako talde honek egiten duen musika bere kideen jatorria bezain nahasia da. Fiti (abotsak, kitarra eta tamagotxia euren gauzatxoak-), Ritxi (bateria), Tibu (baxua eta, abesti batzuetan abots nagusia ere) eta Intxixu (kitarra erritmikoa eta abots nagusia) dira taldea osatzen dutenak, eta euren managerra, Carlos Gracia. Bata Andramariko, ... bestea Sarrikuekoa jatorriz baina egun Indautxun bizi dena, ... eta euren abestiak Rock&Rolletik, Bluesetik igaroz Skara (Kortatu egiten zuenaren motatakoa) doaz. Letrak, maketaren erdia, amodiozkoak dira.

Baina, zer dela eta «aberastasun hori»? Erantzuna berehala eta erraza: bakoi-tzak musika mota bat ategin du, eta batek ekartzten duena besteen gustokoa bada, orduan lantzen dute; bestela, alde batera utzi eta kitto.

Euren hasiera beste hainbeste talderena bezalakoxea izan da. Solfeoa zekien lagun baten inguruan bildu, zenbait instrumentu jotzen ikasi eta apurka-apurka aurrera egin, beren lehenengo maketa kalean ikusi arte, kasu honetan estudioan zuzenean grabatutako Radikal Blues izeneko konpaktoa. Ke no Falte taldeko batek laguntza eskeini die, grabatzeko lekua utzi.


Bi urte hauetan lau aldiz jo dute bakarrik, Bilbon, baina datorren uda honi begira zenbait kontzertu aurreikusita dauzkate Plentzia eta Urdulizko inguruetan. Kontzertuez gain, maketa irratietara bidaltzeko asmoa badaukate ere.

Esaten dute euren inguruan giro berezi bat sortzen dela, jendea ikustera eta entzutera doala... denbora guztia jendea inguruan mugitzen izaten dutela. la sorte duten eta laster gure auzoetako jaietan plaza beteta jotzen ikustenditugun! (Harremanetarako telefonoa: 929-544425 - Carlos)

agenda

Lehiaketa mundiala!

Zorionak aurreko argazkia non atera zen asmatu duzuenoi. Bai, Landa-berdeko futbol zelaiaren inaugurazioko argazkia zen hura. Eta, non zegoen Landaberde hori?. Ba, askok asmatu duzuen bezala, gaur egungo Santutxu kalearen erdialdean zegoen, Ritxi edo El Carmen plazan hain zuzen ere. Hura izan zen Santutxuko futbol zelaia urte-etan.



Esan bezala, askok asmatu duzue, asmatu eta papera bete ez duzuenok baino askoz gutxiago hala ere. Beraz, hurrengoan ibili zoliago, zeren, oraingoan afaria honentzako izango da: **Roberto Diez Martin. (Tatxaaaaaaaaaan!). On egin!**

Oraingo honetan beste argazki hau proposatzen dizuegu. Ezetz asmatu non zegoen txalet dotore hau! Pista bat emango dizuegu: hau ez da Neguri. Asmatu baduzu, eta debalde afaldu gura baduzu, bete txarteltxo hau eta bidali honako helbidera: Berton aldizkaria. Pernet 9. 48004 Bilbo.

NON ATERA ZEN ARGAZKIA?

- o "La Cruz" auzoan, Mallonan. Igogailuaren irteeraren aurrean.
- o Santutxuko Cocherito kaleko telefonika dagoen lekuan
- o Mazustegi eta Zamarripa kaleen gainean, Begoñako gasolindegia ondoan.

Izen-abizenak

Helbidea:

Telefonoa:

 **PUNTAKO KIROL MARKAK**

SANTUTXU SPORT

KARMELO, 9
Tfnoa: 412 37 01 **SANTUTXU**

ANGEL
HARATEGIA -URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6 Tfnoa: 412 48 59

ZURE PUBLIZITATEA

berton

94 4735448

- ❑ **BEGOÑAKO Euskal Txokoa** (Andra Mari auzoan, 5. atariaren aurrean). Igandero izaten dira **BIDEO EMANALDIAK**, arratsaldeko 8etan.
- ❑ **ZURBARANBARRIN** hilerro, ludoteka eta **LARRUA** eta **MALABAREEN TAILERRAK**. Informazio gehiago, bertako Auzo Etxean.
- ❑ **Ekainaren 7an, igandea: Ikastolen aldeko IBILALDIA** Mungian. Hil honen 21ean **ARABA EUSKARAZ** Araia-Zalduondon.
- ❑ **Ekainaren 12an, TXURDINAGA** eskolan **IKASTURTE AMAIERAKO JAIA** izango da. 3.30etatik aurrera gaztelu puzgarriak, umeentzako berbena, suhiltzaileen bitsa eta abar.
- ❑ **Ekainaren 13an, larunbata: MENDI IRTEERA** Eugiko Burdindogi mendira (1.244m), **SANTUTXUKO Mendi Taldeak** antolaturik. Apuntatzeko: astearte edo ostegunean 7tatik 9tara, Medico Antonio Egiluz 3, solairuarterean.
- ❑ **Ekainak 23, asteartea: SAN JUAN GAUA**, Euskal Herriko txoko guztietan.

SANTUSKARATXU 98

- ❑ **Ekainaren 4an, osteguna, Mahai ingurua: "Euskalgintza Santutxun"**, partaideak: Patxi Uribarren, Joseba Arrieta, Martin Basterra. Moderatzailea: Jon Etxebarri.
- ❑ **Ekainaren 5ean, ume jolasak goizean.**
- ❑ **Ekainaren 12an, ostirala, Bertso Afaria.** Igor Elortza, Sebastian Lizaso. Markoartu Txokoa gaueko 10etan. Sarrerak eta informazioa 94 4735448 telefonoan.
- ❑ **Ekainaren 19an Euskal Jaia.** Arratsaldeko 8etatik aurrera. Euskalerriko herrialde guztietako jantziak eta mozarroekin poteo-kalejira eta afaria. Informatu eta apuntatzeko Santutxu Euskal Eskola AEK, 4117656 telefonoan.
- ❑ **Eguna eta lekua oraindino zehaztu barik, Herri aldizkariaren erakusketa.**
- ❑ **Ekainaren 19an Santutxun eta 25ean, osteguna, Kafe Antzokian, Santutxuko gazte sortzaileen gidaren aurkezpena, SORTUTA SORTUZek antolaturik.**

BOTA ZEUREA!

Agenda honetan gure auzoetan egiten diren aktibitate guztien berri emateko asmoa dugu. Guzti-guztiaren berri izatea, hala ere, zaila da eta guztion laguntza ezinbestekoa zaigu. Horregatik, zure inguruan norbait edo zu zeu zerbait antolatzekotan ibiliz gero, mesedez, emaguzu horren berri...

Telefono honetan:
94 4735448
edo
Posta elektronikotik:
berton@mail.com

Harpidedunentzako oharra:

Posta zerbitzuaren grebak direla eta hainbat arazo sortu dira *Berton* leku batzuetara ailegatzeko. Aldizkaria berandu edo oraindino heldu ez bazaizue, mesedez, jakinarazi (**94**)4735448 telefonora deituz eta erantzungailuan zeuen izena eta telefonoa utziz, edo **berton@mail.com** e-postara mezua bidalduaz.

GABILTZA

E.K.N.

PRENTSA BANAKETA

! L A ! U L A ! Z I N D E I N D O N E J O N E !

! A D A T O N !

HOROSKOPOA

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Mozkortzen zarenean primeran kantetan dozu, ezta? Ba, zureak egin dau! Zure lagunek erreserbatuta dauke lekua zuretzat hurrengo jaietako eszenatokian.

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Arrautza frijituak besterik ez dakizula egiten? Ba bada garaia patatak egiten dakian nor edo nogaz batzeko, sikieran biek batera patata-tortila probatuko dozue.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Ulea tintateko garaia heldu jatzu lagun, ule urdinek urdinegi bihurtu dabe zure burua, eta urteetan doblea daukazuzela emoten dau.

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Abraham Olano baino txirringulari hobe izatera heldu guran, ala? Ba, orduan gutxienez komunera joateko bizikletatik jaitsi zaitez, daroazun orinala toperaino daukozu ta.

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Indabak jaten emon dozu aste osoa, ala? Sekulako puzker usaina dago eta denak zuri begira dagozanez...

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Kaiola barruan dagoan txoria dirudizu. Noiz demontre hasiko zara hegan egiteko kurtsilotaera joaten?

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Ostadarraren kolore guztiak urteten jatzuz begietatik bera ikusten dozunean. Koloredun lentilak ipini dozuzala uste dau, ala?

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Hobe zenduke baratzean piperrak eta tomateak landatzen joango bazina egunero telebista aurrean hainbeste ordu egon beharrean, alfer hori!

Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Berarengana hurreratu eta dardarka hasten zareala? Ba, ez pentsatu medikuarenera joateak dardarak kenduko deutzuzanik.

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Mexikora alde egiteko gogoa daukazula? Baina zer uste dozu, itsasoaren bestaldera joanda sentimenduak hemen itziko dozuzala ala?

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Zure gonbidapena zakarrantzira bota dauela? Lasai ba, agian zakarra batzen dauen baten batek irakurri eta pertsonaje sorpresa dozu ospakizunean. Animo!

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Ping-pong-ean jolasteko errefleju faltan zabiltzala? Hobe zenduke gimnasia gehiago egitea eta bitartean xakean egin, zeu mugitu beharrean fitxak mugitzen dozuz eta.

HIEROGLIFIKOA

Non dagoz umeak?

AURREKO HILEKOAREN SOLUZIOA:
BAZKAL ONDOREN.

LETRA ZOPA

Topatu egizuz Mahatserriko hamar kaleren izenak.

A	Z	T	I	R	A	L	U	D	N	I	R	R	I	X	T
D	B	E	L	S	U	F	U	T	Z	U	I	A	E	P	N
A	H	J	S	A	H	B	E	F	R	H	S	B	R	A	K
L	B	I	A	K	D	J	B	T	K	A	B	S	I	P	D
A	O	A	G	E	U	P	M	S	S	E	O	J	U	J	Z
K	M	E	U	X	F	P	G	K	N	Z	D	X	Y	R	L
S	S	F	D	H	D	H	I	G	E	R	I	K	E	T	A
E	I	H	G	T	I	B	J	L	K	A	L	M	K	D	L
T	T	Z	G	R	A	U	S	R	O	N	O	N	C	N	O
B	E	R	H	L	Z	B	I	T	M	T	K	P	O	E	B
I	L	F	O	I	F	X	N	R	L	H	A	F	H	G	T
R	T	I	S	N	N	P	E	L	X	T	J	M	K	O	U
N	A	P	O	Z	E	S	T	A	P	U	N	T	A	S	F

TROKA
EUSKALTEGIA
Resurreccion M^a de Azkue, z/g.
Tel. 9 433 02 62
48004 - BILBO

Egun argian jario

Doinua: Ostatuko neskatxaren koplak(A. Latxa, Oskorri)

- 1- Ilunaren arerio, egun argian jario, atzo gauean gozatuari zure usaina dario.
- 2- Zeru garbian bi laino, zoaz, Eguzki, goraino, zelan ez dekot beste gogorik zeuri kantetako baino?
- 3- Ilargiaren atzena, bera ez da inorena, batzutan ahaztu egiten jata zoriontsua nazena.
- 4- Soloa loraz polito nor ez da udabarriko? zain nago zure udagoiena barriri noz etorriko.
- 5- Elaia deika hasi da, zatoze neure kabira, zure musuak belarrietan laminen kantuak dira.
- 6- Haizeak ohiko egarriz leizarrak dantzan darabiz, eskuok zeure azal goxoa omendu gurean dabiz.
- 7- Sasi artean zozoak, kuku egin dau basoak, zugan gura dot betiko galdu zabaldu eizuz besoak.
- 8- Asuneri udararte krabelina batu jake, hain lotsatia ez bazina bai, zu biluztuko zinake.
- 9- Kirikolatza karreran, iturria non ete dan, laztana maite zaitudalako behar dot zuretik edan.
- 10- Badator gaua astiro, badeko nahiko motibo, maite nozula dakidan arren esan eistazu barriri.

Iñaki Aurrekoetxea.
(Santutxuko Bertso Eskola)

D E R T S O T A N

D E R T S O T A N